

# Mende hasierako ikuspegi amestua 2000 urterako, L. Pedreirak egina. Bilbao año 2000 según una visión escrita por L. Pedreira en 1901\*

*Dr. Joseba Agirreazkuenaga*

Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea

1901ko Bilboko lore jokoen X saileko saria Bilboko etorkizunari buruz jardun behar zuen: Zer den Bilbao eta zer izango da mende bukaeran. Federico Echevarria industrialak finatziatzen zuen saria.

Leopoldo Pedreira Taibo galiziarra zen A Coruñan 1869ko abuztuaren 4an jaio zen, bere kabuz egin zituen ikasketak eta institutuetao katedratikoa bihurtu zen La Lagunan (Kanariasen) Baeza eta Cuencan eta doktoreduna Filosofia eta letretan. Hiri berean hil zen 1915ko irailaren 15an. Kaztetaria ere izan zen, polemista bizia eta kulturetzaz arduratua. Manuel Murgiak proposatzen zuen erregionalismoaren kritikoa zorrotzena bihurtu zen.

Bere liburuan zati handi bi bereiztu behar dira: Bilbori dagokiona eta eritzi orokorrak. Bilbo badirudi ez duela zuzen zuzenean ezagutzen. Datuetan oinarritzen da eta gero literatura egiten du, Bilbo eta bilbotarren kemnari buruz, Ramiro Maezturen ildotik. Pentsakera erregerazionistaren eragina agiri du.

## **Bilbao año 2000 según una visión escrita por L. Pedreira en 1901**

El tema X de los juegos Florales de Bilbao en 1901 premiaba un estudio de prospectiva, para cual los concursantes debían analizar “Lo que es Bilbao y lo que podrá ser a fines de siglo”. La obra titulada Lo que es Bilbao y lo que podrá ser a fines de siglo, escrita por Leopoldo Pedreira Taibo resultó premiada en el concurso.

L. Pedreira nació en A Coruña (4.VIII.1869) y murió en la misma ciudad el 12 de septiembre de 1915. Se doctoró en filosofía y letras y obtuvo la cátedra de Geografía e Historia en el Instituto de La Laguna. Se opuso en sus escritos a las propuestas regionalistas del galleguismo de M. Murguía.

El libro propone a Bilbao “como modelo que han de imitar todas las poblaciones de nuestra decaída España”.

## **Bilbao in the year 2000, according to a vision penned by L. Pedreira in 1901**

The X subject of the *Juegos Florales* (a literary competition) of Bilbao in 1901 offered a prize for a prospective study in which competitors had to analyse “What Bilbao is and what it might be at the end of the century”. The work entitled “What Bilbao is and what it might be at the end of the century” written by Leopoldo Pedreira Taibo emerged as the winner of the competition.

L. Pedreira was born in A Coruña (4/8/1869) and died in the same city on September 12<sup>th</sup> 1915. He obtained a doctorate in philosophy and letters, and held the professorship of Geography and History in the Institute of La Laguna. In his writings he opposed the Galician regionalist positions of M. Murguía.

The book proposes Bilbao “as a model to be imitated by all the towns of our decaying Spain”.

\* Ikerketa hau, Bidebarrieta Kulturguneko ikerketa proiektuen barruan burutu da.

Xose Ramon Barreiro, Santiago Unibertsitateko irakasleari esker, jaso dut, L. Pedreirari buruzko informazioa eta neure esker ona agertu nahi diot.

### **Compendio del artículo**

*El tema X de los juegos Florales de Bilbao en 1901 premiaba un estudio de prospectiva, para lo cual los concursantes debían analizar “Lo que es Bilbao y lo que podrá ser a fines de siglo”. El premio era financiado por Federico Echevarría. Entre las tres obras presentadas resultó premiada la escrita por Leopoldo Pedreira Taibo.*

*L. Pedreira nació en A Coruña (4.VIII.1869) y murió en la misma ciudad el 12 de septiembre de 1915. Se doctoró en filosofía y letras y obtuvo la cátedra de Geografía e historia en el Instituto de La Laguna. Posteriormente se trasladó a Baeza, Cuenca, en cuya ciudad está fechada la obra sobre Bilbao, y A Coruña. Se opuso en sus escritos a las propuestas regionalistas del galleguismo de M. Murguía.*

*El libro propone a Bilbao “como modelo que han de imitar todas las poblaciones de nuestra decaída España”. En el margen de un pensamiento regeneracionista realiza una brevísima descripción de Bilbao para aventurarse en una “oda-vaticinio” en la que la “epopeya de trabajo que Bilbao está realizando”. En lugar de un análisis econométrico y social con datos estadísticos como fundamento de su prospectiva, el autor se inclina por la creación de una obra de literatura política en la que se critica a los profesionales de la política (“el poder político que todo los trastorna”) y llega a proponer su sustitución por una suerte de tecnocracia industrialista que procure el bien de la sociedad.*

*La mitología histórica y las realizaciones del último cuarto de siglo en Bilbao, dirigidas por una élite de industrialistas, le sirven al autor para demostrar que “allí donde se cree que todo debe esperarse del Estado, mostremos que aquí, contra el Estado, sin el Estado y a pesar del Estado, tendemos líneas, fomentamos astilleros, armamos escuadras mercantes y aún nos sobran alientos para fabricar cruceros de guerra”.*

*En la obra predominan reflexiones de fondo político frente a las referidas a Bilbao por lo que el título resulta equívoco. Preconiza la disolución de las nacionalidades modernas, es decir de los estados-nación, y en consecuencia se muestra favorable al internacionalismo, y augura una Europa unida, dotada de microorganismos políticos, con una “Liga eũskara” formada por Gipuzkoa, Alava y Navarra y aparte, “acomodados los fueros” la ciudad libre de Bilbao, un Bilbao metropolitano que englobe y articule el espacio de Bizkaia.*

*En cuanto a las proyecciones demográficas estimaba un crecimiento en el que la población se duplicaría cada 20 años de modo que el Bilbao metropolitano según sus cálculos alcanzaría en el año 2000 2.560.000 habitantes. En la actualidad cuenta con 1 millón de habitantes.*

*Quizás su visión más acertada fue la que formuló sobre la formación de un Bilbao metropolitano en ambos márgenes del Ibaizabal y la unificación de Europa. También sus propuestas antiparlamentaristas y de organización*

*industrial de la sociedad se han realizado en la Europa del este. En suma, es una obra de la literatura política y fantástica, que sirve para ponderar las alternativas que se suceden en la evolución de una ciudad. El análisis de este tipo de literatura tiene un interés creciente ya que reduce a sus justos términos las interpretaciones históricas dominadas por una suerte de determinismo primitivo subyacente que observa la historia y el devenir como un fatum necesario o de consecuencias inevitables, en el que no caben la contemplación de posibles alternativas.*

1901an Lore jokoak antolatu zirenean, *El Sitio* elkartearen bidez, Bilbo erabateko hiri berria bihurtzen ari zen. Nortasun industrial eta finantzieroa irabazi zuen eta bere zabalkundea abiada azkarrean murgildurik, hiri nagusia bihurtzeko unean zegoen, Euskal Herrian eta Iberiar penintsulako iparraldean.

XIX mendean zehar, historiografiaren arloan, Bilbon diskurtso hiritar propioak landu ziren eta beraz, historiaren gertakizunak hiriaren ikuspegi berezia abiapuntutzat harturik, aztertzen ziren. Horra adibidez Konbentzioko gerraren inguruan sorturiko liburua, (*Compendio histórico de los servicios de la Villa de Bilbao en la guerra con la nación francesa publicada por nuestra Corte en el año de 1793*. Bilbao, 1800) edo gerora Francisco Hormaetxek 1844an idatzi zuen Bilboko monografia *Viaje pintoresco por las Provincias Vascongadas* libururako, N. Delmasek argitaratua. XIX mendearen bigarren zatian, Bilbori buruzko izate nortasuna, buruzagien artean, sakondu egin zen, Bilbok hala-beharrez zabalkundeari ekin behar ziolarik inguruko elizateen lepotik. Horrela, 1861an hiri zabalkundeak egiteko legedia indarrean ezarri zen. Bilbon zabalkunde proiektua Lazaroren bidez, Batzelonakoaren ereduari jarraituz, burutu zen, arrakasta barik. 1869an gauzatu egin zen, Felix Agirre alkate zela, Abandoko eta Begoñako lur zati garrantzitsuak, Bilbokoak, legez, eginez edo Bilboko aginteari erantsiz. Giro horretan Bilbori buruzko gogoetak emendatu egin ziren. Eta bigarrenean, hiri zabalkundearen proiektua mamitu zen. Pablo Alzolak eta beste buruzagiak inguruko hirien egoera azterketa, Baionakoa adibidez, ekartzen zituen gogora sarritan, Bilbo berriaren garapenaren isla izan zitezten. E. Delmas, C. Villabasok *Irurac Bat* egunkarian batipat, Bilbori buruzko historiografia eta bestelako ikerketak argitaratzen zituen. Beraz, bazirudien, iraultza industrialaren zurrumbiloan, Bilbo hiri berri nagusi eta buru gisa agertzen zihoan. Giro berritzaile hau erakusteko eta mende berriaren aurrean *El Sitio* elkarteak Lore jokoak antolatu zituzten. Bilbo honezkero ohizko merkatal hiri izatetik, hiri nagusia izateko bidean zegoen eta helburua Espainiako hiri nagusien tokian jartzea zen. Hiri probintzianoa izatetik, metropoli bateruntz abiatzea. Horregatik Lore jokoen hamargarren gaiatzat, honako hau aukeratu zuten: *“Lo que es Bilbao y lo que podrá ser a fines de siglo”*. Beraz alde batetik Bilboren egoera mende hasieran adirazi behar zuen eta ondoren prospektibako ikerketa egitea proposatzen zuten.

Saria Federico Echevarriak ordainduko zuen. Sari honetara, El Liberal egunkariaren albisteen arabera, hiru lan aurkeztu ziren : Aurkezleak erabilitako izkutuko lema baino ez dugu ezagutzen oraingoz : “Adelante hombres de empresa”, “Bilbao avanza hacia el ideal mercantil” eta Abanti in yerno cam-pora”. Lehendabizikoak irabazi zuen eta idazlea Leopoldo Pedreira izan zen.

### **Leopoldo Pedreira Taibo (A Coruña 4.8.1869-A Coruña 12.9.1915)**

Jaio eta hil hiri berean egin zuen Leopoldo Pedreirak.<sup>1</sup> Filosofia eta letre-tan lortu zuen doktoradutza eta La Lagunan lortu zuen Geografia eta Histo-riazko institutuko katedra. Ondoren Baeza eta Cuencara aldatu zen berriz A Coruña-ra itzultzeko. Cuencan idatzia dago Bilbori buruzko lana. Beste hainbat artikulu eta liburu idatzi zituen. M. Murguiak aldarrikatu zuen galegismoaren aurkaria bihurtu zen. Bizi izan zen hiri guztietan, bertako kultur giroan parte zuzena hartu zuen, iritzizko kazetaritzaren bidez, bere ideiak barreiatuz. Horrela, egunkari batzuetako zuzendari ere bihurtu zen aldi batzuetan.

Idatzi zituen liburu batzuk adibidez: *Concepto de la patria* (Madrid, 1892), *El regionalismo en Galicia (Estudio Crítico)* (Madrid 1894), *Rudimentos de Geografía. Primera parte. Preliminares y europa.* (A Coruña, 1911)

Baina ondoren Bilbori buruzko lana eta liburua aztertuko dugu: *Lo que es Bilbao y lo que podrá ser a fines de siglo. Importancia de Bilbao en 1901 proba-ble grandeza de la capital de Vizcaya en el año 2000.* (Madrid, 1902) 114 orr.

### **Bilbo 1901an eta 2000an izan bide litekeena.**

Liburuaren edukia ezagutzeko, hasieran idatzi zuena, giltzarria da: “*un himno en prosa al Bilbao de 1901 y una oda-vaticinio al Bilbao del año 2000*”.

Beraz, gorazarre egiten du, Bilbori buruzko datu nagusiak azpimarratuz, baina kutsu poetikoz. Hortik ereserkia ateratzen da, prosaz idatzizko ereser-kia. Bazuen bai eduki mende hasierako Bilbok gorazarrea egiteko motiborik, industrigintza arrakastatsua gihartu zelako gizartean eta horren ispilu eta isla garbia zen hiria. Etorkizunari begira, estadistika demografikoan finkaturik, iragapenak egiten ditu baina literatura fantastikoaren atal gisakoa gehiago diru-di, azterketa prospektiboaren ondorioa baino. Autorea geografoa izanik, ohi-turik dago estadistiken erabilerara baino ez du aplikatzen metodorik, Bilbori buruzko behin behineko informazio estadistikoaren jabe ez zelako. Beraz gehien bat beste oda edo kantua egiteko gai da bigarren zatian. Hala ere, bes-

---

<sup>1</sup> COUCEIRO FREIJOMIL A., *Diccionario bio-bibliográfico de escritores*. Santiago, 1953, T. III, 54-55 o.

te literatur ikuspegiaren parean, berea, zientziaren hizkeraz orniturik agiri zaigu eta hori bereizgarria dugu.

XX mendean badaude beste iragarpen edo azterketa prospektiboak, Bilboko Merkatal Ganbarak egin zuena adibidez 1968 urte ingurukoa. Datu estadistiko ugari erabili arren, orduan ere ez dirudi erabat zuzen ibili zirenik etorkizunari buruzko iragarpenak egiteko unean.

Hala ere, Pedreiraren liburuak, literatura den heinean, baditu intuizio nabarmenak etorkizuneko Bilbori buruz. Garrantzitsuena nire ustez, Bilbo metropolitanoarena litzateke. Oraindik ensantxearen lehen zatia baino ez zegoenean, garbi adierazi zuen Bilboren etorkizuna Ibaizabal ibarraren barrena zabalduko zela.

Azkenik, aipatu, Pedreirarentzat, Ramino de Maezturen iritziak zirela, aintzazkoenak, batez ere garaiko prentsan argitaratu zituen artikulua dituen abiapuntu. Enpresa industrialen buruzagiak, gizarte berriaren heroe eta aintzidari bihurtzen ditu. Ikuspegi horretan oinarriturik, mende amaierako kinka larrian bizi zen giroan kokatu behar da bere lana, Espainiarako erregenerazioa premiazkoa zela aldarrikatuz, nun industrialen eraginkortasuna indartsuagoa behar-ko zukeen izan, berauek baitzuten eraberritasun eta modernotasunaren buruzagi izateko gaitasuna. Horregatik Bilbo, gizarte berriaren metafora garbia zen eta horregatik intesatu zitzaion Bilboko kasua, eraberritasunaren adibidetzat ezarritz.

### *Mende hasierako Bilbori buruzko ikuspegia*

Liburuak, beraz, lehen zatian Bilbori buruzko ikuspegiaren dihardu. Berez goraiatzat du, Bilbon, lanaren ondorioz, sortu dela hiri berria. Baina lanaren ekinean eta indarrean ezarri zuen abiapuntua, Bilbogintza berriaren giltza. Ohizko Bilbo, edozein probintzietako hiri baten antza zuen. Botxoko Bilbo, hiri probintzianoa zen, Espainiaren kontestuan. Baina urte gutxiren buruan, hiri moderno eta indartsuaren isla agiri zen. Horixe da, azpimarratzen saiatu zena, bestelako hiri probintzianoak ondo ezagutzen baitzuten Pedreirak. Antzeko eztabaida 1890an gertatu zen Bilbo bertan P. Alzola eta M. Unamunoren artean. Azken honek, Bilboko ohizko kutsuaren galpenaz kezkatu-rik zegoen, Botxoko Bilbo maite zuelako eta ondorioz gorroto, ohizko nortasunaren aurkakoa zenari, P. Alzolak eta besteak diseinatu zuten hiri berriari, berau Bilbo ez baitzen. Eztabaida hori M. Unamunoren kasuan, *Mi bochito* artikuluan dakusagu eta azken esaldia erabat esanguratsua da:

*...”Ay mi bochito si pierdes ese custodio(...) desfigurado o trasfigurado por tu Ensanche; muerto un día el tilo; si te estropean tus campestres alrededores ¿qué será de tí? Serás otro, más bello tal vez, de seguro más glorioso, pero del mío... ni sombra!*

*Y ahora que me he desahogado... ¡viva Bilbao! es decir, trasfórmese, cambie, depúrese, rompa su estrecha cárcel de crisálida y échese*

*a volar sobre el fragor de la industria, que con el capullo vacío nos quedaremos los que hagamos del alma panteón de dioses muertos, de héroes deificados por la muerte purificadora.”* (Salamanca, junio de 1900)<sup>2</sup>

Berak ere onartu behar du, beste gustuko ez zuen Bilbo berri hori ere, Bilboren zati garrantzitsua zela, Bilbo ere bazela, Abandon eraikia izan arren. Eta ondoren Begoñan edo Ibaizabalen ibar bietan eraikiko zena, Bilbo izango zela onartu beharrean zegoela.

Hiri berriaren beste berezitasuna zen, populazioaren kopuari begiratu ezker, autoreak zifra absolutuak, modu kualitatiboan interpretatzeko joera erakusten duela: *“las estadísticas adolecen todas de un cardinal defecto: dan la cantidad de las cosas, no la calidad, los setenta y ocho mil bilbainos representan más energía, más riqueza, más virtudes, más esperanzas que el medio millón de vecinos de Madrid”* ( 25 o.).

Esaldi honek balio du Bilboko azken lau mendetako historia laburtzeko. Populazio aldetik, hiri txikia izan da beti baina bere ekimenetan bertako buruzagiek hiri handia balitz bezala jokatu ohi dute. Proporzio falta hori asmo eta errealtateen artekoa, alegia, betidanikoa izan ohi dela dirudi Bilboko kasuan.

Liburuaren lehen zatia idazteko bere sorburuak literarioak dira, aipatu dugun R. Maeztu eta B. Perez Galdosen nobeletan oinarritua. Horrez gainera *Círculo de Mineros* elkarteak argitaratu zuen 1900ko memoria eta *Reforma sociales, información oral y escrita* delakoetan ditu oinarritzko iturri bideak. Industriegintza modernoaren bi arpegiak agiri dira txosten biak irakurri ezker. Lehenean produkzio handiaren isla eta bigarren bere kostu sozialena. Eta Pedreirak atera zuen ondorioa honako hauze zen: *“Las grandes batallas de la industria, a semejanza de las grandes luchas militares no se ganan sin víctimas, sin dolores, sin sangre”* (35-36 orr.) Ideia hau, garaiko liberalismoaren adierazpenik nabarmenena dugu, baita edozein militarismoarena ere, nun garrantzitsuena nolabaiteko progreso edo aurreramentu materiala da. Iraultza industrialaren ikuspegi baikorren baitan kokatu behar da autorearen pentsamentua eta bere ustea, determinismo sozialaren arloan kokatzen da, aurreramentu materialean finkatzen delarik erabateko ongi izatezko gizartea, eta beraz, halabeharrez, belaunaldi batzuk galdu egin behar dute ongi izatea, ondokoak ondo izateko. Ideia hauek bete betean, bat zetozen, *El Sitioko* buruzagi eta Bilboko Lore jokoetan sariak ordaintzen zutenekin.

Hala ere, arazo soziala, XX mendeko arazo nagusia izango zela iragarri zuen Pedreirak. Dena dela, Bilbon ikusten du, bertako burgeseria industrialak

---

<sup>2</sup> UNAMUNO M., “Mi bochito”, in *El Centenario. Revista ilustrada bilbaina.*, nº 2, Bilbao, 1900. p. 13. Faksimil erreprodukzioa: Bidebarrieta Kulturgunea. Bilbao 1996

bazituela aurreikusita arazo sozialari aurre egiteko moduko neurriak, hospitalak, eskolak eta abar. Bazirudien, bertako erakundeen lana, delako arazoak sortzen zituen ondoezak eta ondorio larriak bideratzeko gai zela. Eta parekatu ezkerro Espainia eta Europako beste herrialdeekin, osasuna eta benefizientziak, Bilbon, bestelako abaintailak zituela. Beraz, arazo sozialaren konponketa laguntasunerako zerbitzuen sorreran jartzen zuen, eskubideen arloan gehiegi sakondu gabe. Garaiko erakundeen goraiipamena egiteko balio dio guzti honek.

Lehen zatiaren bukaeran, azpimarratzen du Bilbon gizarteratze edo sozializazio prozesuak eragiteko elkarte biziak zeudela, desberdinak eta beraz hiri berrien isla nabarmena. Horrela aipatzen ditu elkarte sozial garrantzitsuenak, *El Sitio*, *Centro Vasco*, *Sociedad Bilbaína*, *Club náutico*, *Euskal Erria*. Elkarte sozial eta kulturalen ugaritasunak, hiria aberastu egiten zuen eta hiri modernoaren agiritzat hartu behar ziren.

Horela, ondorio gisa, Bilboko mende hasierako egoerari buruzko zatia honela bukatzen du : *“La grandeza de Bilbao, su impulso, su crecimiento, la seguridad de los derroteros que sigue para lo porvenir, anuncian que la capital vizcaina será una de las principales ciudades del siglo XX”* (51 orr.)

#### *Etorkizuneko Bilbo 2000 urtean.*

Munduko hiri nagusiak, ibaiaren nagusien ondoan sortu zirela erakusten du. Adibidez, Londres, New York, Hamburgo, Buenos Aires eta beraz, horien antzera etorkizun haundiko hiria izango da Bilbo ere, ibaiaren baldintza duelako. Ibaiak nortasun berezia ematen dio hiriari, premiazko ardatz gisa. Bilbon oso gustuko zen metafora erabili zuen, munduko hiri nagusien ondoan, Bilbo, kokatzen zuelako.

Bilbo etorkizunean, populazioari dagokionez, metropoli handia izango bide zen, 2.5 miloi pertsoz osatua. Horixe da Pedreirak egin zuen iragarpena. Metropoliaren iragarpenean asmatu bazuen, ez horrenbeste zifretan, miloi baten ingurukoa baita.

Bere saiakeran, hirigintzaz, gizartegintzaz, politikagintzaz ari da eta horrez gainera konparaketak egingo ditu Espainiako estatuko beste hirien parean Bilboren kasua komentatuz eta kokatuz. Bukaeran, berriz ere, burgeseria industrialaren gorazarrea egin zuen, fenomeno berritzailearen heroe nagusiak zirela azpimarratuz.

Politikagintzaren arloak, toki berezia hartzen zuen eta liberalismo parlamentarioaren kritika egin zuen. Helburua litzateke, *“vivir sin política”* botere politikoak guztia eraldatzen duelako (*“el poder político que todo lo trastorna”*). Gizartean gobernu industrialak sortu behar ziren edo hobe esanda organizazio industrialak adibidetzat harturik, gizarteko bizimodua antolatu. Mende hasieran, faktoria sistema, lan industrial antolatzeke era nagusia zenez gero, horixe du eredutzat gizarteentzat (67 o.). Baina gizartean bestelako harreman

informalen eta difusoak daudela aintzat ez zuen hartu eta delako ideia-aren adibidea, ekialdeko estatu sozialistetan indarrean ezarri zen, nolabait behintzat. Mende bukaera honetan, neurgarriak dira ereduaren ondorio garbiak. XIX mendean ausnarturiko aukerak XX mendean indarrean ezarri baitira, eta ondorioak ateratzeko garaian bizi gara. Gizartea sozialki makurturik eta txiroturik sortu eta gihartu zen, errazoi nagusiaren arabera, guztia planifikatzea ezinezkoa baita.

Bestalde, Europaren ikuspegia agiri zaigu liburuan eta hau berritzailea zen bere garaian. Europaren batasuna iragartzen du. Iragarpen hau zehaztasunez egiten da. Alde batetik Erresuma Batuko inperioaren gainbehera eta Irlandaren independentzia iragarritz ere bai. Horra bere hitzetan, iragarpen zabala:

*“Los cambios realizados en Europa durante el siglo XX serán infinitamente más hondos y trascendentales que los causados por la revolución francesa: las actuales nacionalidades habrán desaparecido formando los Estados Unidos de Europa, cuyo número pasará de doscientos, de los setenta y cinco Estados autónomos que constituyen la Europa de 1901, solo conservarán sus actuales delimitaciones territoriales las veinticinco repúblicas que constituyen la Confederación Helvética, parte de los veintiseis Estados de las Confederación Germánica, los reinos de Rumania, Servia y Bulgaria, los principados de Montenegro, Mónaco, y Liechtenstein, el gran ducado de Luxemburgo, las repúblicas de Moresnet, Andorra y San Marino y la ciudad de Fiume” (65 o.)*

Beraz Europa mikrorganismo politikoetan oinarrituz antolatuko zen, hiri-gune nagusiak berebiziko garrantzia izanik. Eta ondoren iraganeko ikuspegi idealizatua erakusten du, paseismo historikoz orniturik. Antzinako merkatal errepubliketan antzera, nun korporatibismoa eta jerarkia soziala sendoturik zegoen. Beraz bozketak gabeko gizartea antolatzea zen helburu. Badirudi, korporatibismo soziala asmatu nahi duela, liberalismo politikoaren aurreko egoerara itzultzeko, gizarte politikoaren antolakuntzan. Horregatik nazio-estatuaren aurka agiri da eta estatu horien desagertzea iragartzen du. Guzti hau nolabait izateko kontraesanetan zegoen, ekonomiarako aldarrikatzen zuen liberalismoaz. Azken batean, buruzagien ordezkatzeko soila baino ez zen gertatu gizarte modernoetan Pedreiraren arabera: Ohizko hirietako merkatal errepubliketan merkataritzazko burgeseria buruzagia baldin bazen, gizarte modernoetan industrigintzazko burgeseria behar luke izan erabateko gidaritza ekonomikoa zein politikoaren buru. Politikagintzara enpresaren eredu aplikatu behar zen eta beraz nor hobeto, industrigintzazko burgeseria baino politikoki gizartea ere gidatzeko? Horrela bada, bozketarik ez zen behar, eta bestalde antiparlamentarismo garbia, berau kurioski, militarismoaren zergatietan kokatzen zuelarik (67 o.). Baina historiak erakutsi diguna da, antiparlamentarismoak diktadurak sortu dituela. Beraz, bere pentsakeran agiri dira diktadura erre-generazionistak eta korporatibisten pentsamenduaren aurrerapena. *“Del mis-*



*mo modo hoy no comprenden muchos las sociedades sin parlamentos, ni elecciones, ni quintas, ni contribuciones, ni pauperismo. Y, no obstante, en el mismo siglo XIX hay ejemplos vivos de pueblos que han vivido y siguen viviendo sin conocer las ruedas superfluas de los modernos Estados, ruedas tan inútiles y perjudiciales como las de los gobiernos anteriores a la Revolución francesa”(69 o.)*

Europaren batasuna eta ohizko nazio-estatu nagusien desagertaren ondoan, internazionalismoa, halabeharrez etorriko zen.

Giro horretan, Espainia ere banaturik gertatuko zenez gero, Euskal Herria horrela ikusten du antolaturik: Alde batetik Liga Euskara izango zen, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroak osaturik. Besterik Bilboko hiri libre, Bilboko metropoliak Bizkaiko lurralde guztia arautzen edo antolatzen zuelarik. Europako nazio-estatuak desegingo direnez gero *“para evitar que volviesen a levantarse las antiguas fronteras, el militarismo, el parlamentarismo y la paz armada. en España, Alava, Guipuzcoa y Navarra formaron (sic) sendos cantones independientes, pero unidos entre si con lazos anfictionicos y con el nombre de Liga Euskara; pero Vizcaya formó (sic) un organismo aparte con el título de Ciudad libre de Bilbao y su territorio, semejante a Hamburgo, Lubeck, Brema y Fiume”* (67.o.)

Merkataritzari garrantzia handia eransten dio eta horrela Barcelona mediterraneoko merkatalgune garrantzitsua izango dena, Atlantikoan antzeko etorkizuna iragartzen dio Bilbori. Beraz, mende bukaeran Espainian Bilbo hirugarren hiri nagusi bihurtuko zen, Madrid eta Barcelonaren atzetik.

Euskarak ere bere lekua hartzen du azterketan. Etorkizunari begira, euskara hizkuntza interesgarria izango zela adierazi zuen, merkataritzan eta harremanetan erabiltzeko egokia, areago oraindik, ekialdean Japon nagusituko zelako eta beraz euskara eta japoniar hizkuntzaren arteko kidesan, hartuemonak errezteko balioko zuen. Azpimarratzekoa da, Unamunok lore jokuetan iragarri zuen euskararen berezko heriotza iritsiko zela, bizitza modernorako desegokiturik zegoelako eta beraz azterketa filologikoen artean baino ez zuela baliore berezia izango. Pedreirak bestelako garrantzia eta ondorioz berezko balorea eransten zion. Liga euskara delakoaren proiektuan eta euskararen balioan, ikus daiteke errepublikarren eragina bere pentsakeran. Garaiko errepublikarren artean antzeko ideiak komentatzen zirelako. Bilboko masoien artean, euskaltzalekasun errepublikarra, sarritan industri gizonen artean giharturik agiri zen.

## **Laburbilduz**

Batzutan badirudi Bilboko adibidea aitzakia baino ez dela, bere ideia politiko sozialak adierazteko, etorkizunari buruzko iragarpenak egiteko. Eta horretarako Bilbon azken 30 urtetan gertatuikoa abiapuntutzat baino ez duela hartzen.

Bere iragarpenetan, garrantzitsuena ezbairik gabe Bilbo metropolitanoarena dugu. 1980arteko populazio bilakaera nahiko hurbiletik estimatzen ditu, 1.280.000 iragartzen baitzituen. 2000 urterako 2.560.000 iragartzen zituen. Hogei urterik behin populazio bikoizten zela uste zuen, XIX mende amaierako Bilboko adibideari jarraituz. Baina, zikloak beti berdinak ez direnez, azken 20 urtetan, geldiune nabarmena agiri zaigu.

Liburuaren helburua, azken batean Bilboko burgesiaren gorazarrea egitea zen eta beste horrenbestekoa, sari sortzaileen asmoa. R. Maeztu literatur giroko gorazarre hutsean gelditzen baldin bazen, Pedreira Europako geografiari buruzko ezagupidea hartzen du oinarritzat, Bilboko kasua beste giro eta ingurunean kokatuz eta parekatuz. Berea, literatura politikoa dugu, fantastikoa batzutan, zientzi hizkeraz jantzirik.

Dena dela nire ustez, honelako saiakerak interesgarriak dira, ikusteko, historian halabeharrezkorik ez dagoela. Alternatibak ikustea, iragartzea eta abar, malgutasuna, irekitasuna eta pentsamentu toleranterako bidea irekitzen du, sarritan historialarion artean, zergatiak, determinismoz josirik agiri direlarik, fatum edo halabeharrezkoaren azalpenaren ildoan, besterik posible izango ez balitz bezala.